E) *Puestos de trabajo vacantes*

No se producen traspasos a la Comunidad Autónoma del País Vasco en este apartado.

F) *Créditos presupuestarios*

No se producen traspasos a la Comunidad Autónoma del País Vasco en este apartado.

G) *Efectividad de los traspasos*

Sin perjuicio de la fecha de entrada en vigor del Real Decreto aprobatorio del presente acuerdo, los traspasos acordados serán efectivos a partir del día 1 de agosto de 1981.

Y para que conste expido la presente certificación en Madrid a once de junio de mil novecientos ochenta y uno.—Joaquín Morales Hernández.

738

Irailaren 14ko 103/1981 DEKRETOA, Euskal Herriko Merkataritza, Industria eta Itsasketa-Etxeei buruz.

Euskal Herriko Autonomia-Estatutoak, bere 10.21 Atalean, bakarreango agintepidea ematen dio Euskal Herriko Autonomia-Elkarteari Merkataritza, Industria eta Itsasketa-Etxeei dagozkienetan, Konstituzioaren 149.1.10 Atalak agintzen duenaren kaltetan gabe.

Bestalde, zera esan behar da: Epailaren 2ko 300/78 Errege-Dekretoaren arauera, Merkataritza, Industria eta Itsasketa-Etxe Ofizialen eta beste Merkataritzako Ihardutze-Sail eta Erakunde batzuen lanak erakidetzeko, suztatzeko eta hoiei bultz egiteko ahalmena eskuratu eta, azkenean, Uztailaren 24ko 1.998/1981 Errege-Dekretoaren arauera, Autonomia-Elkarteak, indarrean dauden legeen arauera esandako Merkataritza-Etxe hoiei buruzkoetan Ekonomia eta Merkataritza-Ministeritzari zegozkion agintepideak Autonomia-Elkarteak beretzakotu zituela.

Gauzak horrela, Merkataritza-Etxeon oraingo egitekoak kontutan izanik, eta horretzazko legeak eman ez daitezen artean, Eusko Jaurlaritzak dagozkion agintepideen egiterapena oraingoz beretzakotzea komenigarri gertatzen da.

Horregatik, Merkataritza eta Turismo-Sailburuaren saloz, eta Eusko Jaurlaritzak mila bederatzirehun eta larogeita batgarreneko Irailaren hamalauan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

*Lehenengo Atala.*—Herri-legeen alorreko Erakunde izan eta funtsean, bakoitza bere lur-eremuan, merkataritzaren, industriaren eta itsasketaren guztizko zuduen ordezkotza dagokien Bilboko eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa-Etxe Ofizialak eta Arabako Merkataritza eta Industria-Etxe Ofiziala Eusko Jaurlaritzaren menpeko dira, Merkataritza eta Turismo-Sailaren bitartez, Konstituzioaren 149.1.10 Atalak Erresumarentzat gordetzen duen Atzerri-Merkataritzaren alorreko egitekoen egiterapena izan ezik.

*2garren Atala.*—Euskal Herriko Merkataritza, Industria eta Itsasketa-Etxeei buruzko guztietan orain arte Erresuma-Arduralaritzari aitortzen zitzaizkion agintepideak Eusko Jaurlaritzari ematen zaizkio, eta Merkataritza eta Turismo-Sailak egiteratuko ditu.

*3garren Atala.*—Orain arte Merkataritza-Etxeei zegozkieken aholku-ematezko eta saloak egitezko egitekoak bere agintealorrean Eusko Jaurlaritzako Sailei dagozkiela ulertuko da, eta hoiek egiteratuko dituzte dagokienen aurrean, Merkataritza eta Turismo-Sailak berenez eskuhartu ez dezanetan horri jakinaraziz.

Erresumako Arduralaritza Nagusiarekiko egitekoak, horren agintepeko aholku-ematezko nahiz salo-egitezkoak, aurrerantzean ere hoiek artez egiteratuko dituzte Arduralaritzaren aurrean, esandako Sail horri jakinaraziz.

738

DECRETO 103/1981, de 14 de Setiembre, sobre Cámaras de Comercio, Industria y Navegación, del País Vasco.

El Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su artículo 10.21 otorga a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en lo que se refiere a las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación, sin perjuicio de lo que dispone el artículo 149.1.10 de la Constitución.

Por otra parte es de señalar que conforme al Real Decreto n.º 300/78, de 2 de Marzo, fueron transferidas las funciones de coordinar, promover e impulsar las actividades de las Cámaras Oficiales de Comercio, Industria y Navegación y otros Organismos e Instituciones Comerciales y por último y de acuerdo con el Real Decreto n.º 1.998/1981 de 24 de Julio, la Comunidad Autónoma ha asumido las competencias que al Ministerio de Economía y Comercio le correspondían conforme a la legislación vigente en cuanto concierne a las referidas Cámaras.

En este estado de cosas y teniendo en cuenta las funciones actuales de las Cámaras y hasta tanto no se proceda a legislar sobre dicha materia, es conveniente que desde ahora se asuma por el Gobierno Vasco, el ejercicio de las facultades que le corresponden.

En su virtud, a propuesta del Consejero del Departamento de Comercio y Turismo y previa deliberación del Gobierno Vasco en su reunión del día 14 de Setiembre de 1981,

DISPONGO

*Artículo 1.º*—Las Cámaras Oficiales de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao y Guipúzcoa y la Cámara Oficial de Comercio e Industria de Alava, Corporaciones de Derecho Público, a las que corresponde en principio, la representación de los intereses generales del comercio, la industria y la navegación en sus respectivas demarcaciones dependen del Gobierno Vasco a través del Departamento de Comercio y Turismo exceptuando el ejercicio de las funciones relacionadas con materias de Comercio Exterior reservadas al Estado por el artículo 149.1.10 de la Constitución.

*Artículo 2.º*—Quedan atribuidas al Gobierno Vasco y serán ejercidas por el Departamento de Comercio y Turismo las competencias reconocidas hasta la fecha a la Administración Central en cuanto concierne a las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación del País Vasco.

*Artículo 3.º*—Las funciones consultivas y de propuesta que hasta el presente momento pudieren corresponderles a las Cámaras se entenderán referidas a los Departamentos del Gobierno Vasco en su ámbito de competencias y las ejercerán ante el que corresponda dando cuenta al de Comercio y Turismo en las que éste no interviniere.

Las funciones respecto a la Administración Central del Estado en materias de la competencia de esta última, tanto la consultiva como la de propuesta, continuarán ejerciéndolas directamente ante ella poniéndolo en conocimiento del referido Departamento.

*4garren Atala.*—Indarreango legeetan Merkataritza-Etxeei zegozkien agintepideak Eusko Jaurlaritzaren menpeko edo horrek edo Arduralaritza Nagusiak sortarazitako Erakunde, Iraskunde, Antolapide eta Herri-Zerbitzuei dagozkiela ulertuko da.

*5garren Atala.*—Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Merkataritza-Etxeek, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailaren bidez utzi edo eman diezazkien agintepideak erabili eta egitekoak bete ahal izango dituzte, batez ere ekonomia-ikastaldi, azterlan eta argipideei, zehaztapidetzak hartu eta errolderatzeari buruzkoak, edo ekonomia- iharduna suztatzeko baliagarri eritzitako gainontzeko beste edozein.

*6garren Atala.*—Merkataritza-Etxeek, Autonomia-Elkartearentzat interesgarri izan daitezen merkataritzari, industriari eta itsasketari buruzko estadistikak egin beharko dituzte, horretarako gai diren Eusko Jaurlaritzako Ihardutze-Sailekingo elkarlanean.

*7garren Atala.*—Merkataritza eta Turismo-Sailak, Merkataritza-Etxeen alorreango bere egiteko eta agintepideak egiteratzeko, ez du aintzin-argipiderik beharko, ez Merkataritza-Etxeen Kontseilu Nagusiari entzun beharrik ere; era berean, horren Egintzapide-Batzordeak ez du Euskal Merkataritza-Etxeekiko bitartekotza-lanik ere egingo.

Hori guzti hori, esandako Merkataritza-Etxeen Kontseilu Nagusi hori 1981garreneko Uztailaren 24ko Errege-Dekretoak dionez harreman-sail denez Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Merkataritza-Etxeek bertan eskuhartzeari eustearen kaltetan gabe.

*8garren Atala.*—Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailari, Euskal Herriko Merkataritza, Industria eta Itsasketa-Etxeen Kontseilu bat eratzeko eskua ematen zaio, Kontseilu horrek, hala egokituz gero eman dakizkion agintepideak dituela.

*9garren Atala.*—Merkataritza-Etxeen Jaurtze-Sailen erabaki eta akordioen aurka Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailaren aurrerako goradeia egin ahal izango da, hamabost eguneko epearen barruan; Arduralaritza-Auzipideetatikako goradeiei buruzkoetarako, Sailaren erabakiak arduralaritza-bidea bukatu egingo du.

Esandako goradei hoiek, Arduralaritza-Legeak agintzen duenez araupetuko dira.

Konstituzioaren 149garren Atalaren 1.10 zatiak Erresumarentzat gordetzen dituen gaiei artez doazkien erabaki eta akordioegatikako zuzenketaeskeak ez dira goradeia egin ahal izate horretan sartuko.

*10garren Atala.*—Elkarteko Merkataritza-Etxeek bere dituzten egitekoak betetzea errazagotzeko, Sailburuak izendatutako Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailaren Ordezkari batek Merkataritza-Etxeen Eraentza-Sailen bilkuretara joan ahal izango du, hitz egiteko eskubidez baina botoa ematekorik gabe.

*11garren Atala.*—Autonomia-Estatutako Aldibaterako Erabakietatik Bigarrenak dionaren kaltetan gabe, Elkarteko Merkataritza-Etxeetako lanariekiko agintepideetan Erresumako Arduralaritza Nagusiari izendatutakoak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailak egiteratuko ditu.

*12garren Atala.*—Elkarteko Merkataritza-Etxeek bere agizko diru-eskuarteen borondatezko ordainketa-aldia eta esandako ordainketa horri buruzko gainontzeko xehetasunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dituzte. Hori

*Artículo 4.º*—Las facultades que correspondían a las Cámaras en la legislación vigente se entenderán referidas a las Instituciones, Fundaciones, Establecimientos y Servicios Públicos dependientes o creados por el Gobierno Vasco o por la Administración Central.

*Artículo 5.º*—Las Cámaras de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán ejercer las funciones y desarrollar los cometidos que el Gobierno Vasco les delegue o encomiende, a través del Departamento de Comercio y Turismo, especialmente en lo que se refiere a cursos, estudios e informes económicos, recepción y registro de expedientes o cualesquiera otros que considere de utilidad para el fomento de la actividad económica.

*Artículo 6.º*—Las Cámaras quedan obligadas a la elaboración de estadísticas referentes al comercio, la industria y la navegación, de interés para la Comunidad Autónoma cumplimentándolas en coordinación con los Organismos competentes del Gobierno Vasco.

*Artículo 7.º*—El Departamento de Comercio y Turismo para el desarrollo de sus funciones y competencias en materia de Cámaras no precisará del informe previo ni del requisito de oír al Consejo Superior de Cámaras, de igual manera que su Comité Ejecutivo no ejercerá funciones mediadoras respecto de las Cámaras Vascas.

Todo ello sin perjuicio de que las Cámaras de la Comunidad Autónoma del País Vasco mantengan su participación en el referido Consejo Superior de Cámaras como órgano de relación tal y como se establece en el Real Decreto de fecha 24 de Julio de 1981.

*Artículo 8.º*—Queda facultado el Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco para la creación de un Consejo Superior de Cámaras de Comercio, Industria y Navegación del País Vasco con las facultades que, en su caso, reglamentariamente se estableciesen.

*Artículo 9.º*—Las resoluciones y los acuerdos de los Organos de Gobierno de las Cámaras son impugnables en alzada en el plazo de quince días, ante el Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, cuya resolución, a los efectos del recurso contencioso-administrativo, dará fin a la vía administrativa.

Los indicados recursos se regularán por lo dispuesto en la Ley de Procedimiento Administrativo.

Se exceptuarán de dicha alzada los recursos motivados por resoluciones y acuerdos que estén directamente relacionados con las materias que el artículo 149 apartado 1.10 de la Constitución reserva al Estado.

*Artículo 10.*—Para facilitar el cumplimiento de las funciones propias de las Cámaras de la Comunidad, podrá asistir a las reuniones de los Organos de Gobierno de las Cámaras, con voz pero sin voto, un Delegado del Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, nombrado por su Consejero.

*Artículo 11.*—Sin perjuicio de lo que establece la Disposición Transitoria Segunda del Estatuto de Autonomía, serán ejercidas por el Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco las competencias en materia de funcionarios de las Cámaras de la Comunidad atribuidas a Organos de la Administración Central del Estado.

*Artículo 12.*—Las Cámaras de la Comunidad publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco los períodos voluntarios de cobro de los recursos permanentes y otros detalles relacionados con el mencionado cobro. Todo ello sin perjuicio del ré-

guzti hori, Arabako Merkataritza-Etxearen berarizko jaurpideen eta gainontzekoak horri egokitu ahal izatearen kaltetan gabe.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*—Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailari, Dekreto hau egiteratzeko, eginkor egiteko eta erabiltzeko osatze-bidezko arauak emateko eskua ematen zaio.

*Bigarrena.*—Merkataritza-Etxe bakoitzaren Barne-Jaurpiderako Araudiak Erresumako Arduralaritza Nagusiko Ihardutze-Sailei izendatzen dizkion agintepideak, Dekreto honetan agintzen denaren arauera Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo-Sailari dagozkiola ulertuko da.

*Hirugarrena.*—Dekreto hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteizen, 1981garreneko Irailak 14.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Merkataritza eta Turismo-Sailburua,
CARLOS BLASCO IMAZ.

gimen específico aplicable a la Cámara de Alava y la posible adaptación a dicho sistema por parte de las restantes Cámaras.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*—Se faculta al Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco para dictar las normas complementarias para el desarrollo, eficacia y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*—Las competencias que los Reglamentos de Régimen Interior de cada una de las Cámaras atribuyen a Organos de la Administración Central del Estado, se entenderán referidas al Departamento de Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, de acuerdo con lo que se dispone en el presente Decreto.

*Tercera.*—Este Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de Setiembre de 1981.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Comercio y Turismo,
CARLOS BLASCO DE IMAZ.

## LURRALDE-ANTOLAKETA ETA HERRILAN-SAILA

**739**

Lurralde-Antolaketa eta Herrilan-Sailaren Abuztuaren 14ko 5/1981 AGINDUA, Udalen Hirigintza-Egitamuketarentzako 1981garrenerako laguntzentzat arauak jarriaz.

Jaun Txit Argia.

1981garreneko Uztailaren 16an, Eusko Legebiltzarrak "Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen 1981garrenerako Guztizko Diruegitamuak" 8/1981 Legea onartu zuen horrek, berebaitan, Egitamuketaren Laguntzarako 75.000.000 pesetako dirutza bat zeramala.

Jorrailaren 9ko 1.346/1976 Errege-Dekretoz onartutako Lurraren Jaurpide eta Hiriantolaketa-Legearen Eraberritutako Idazkeraren 191garren Atalak dionez, esandako dirutza hori Lurralde-Antolaketa eta Herrilan-Sailak jarri ditzan moduen arauera banatu behar da eta, hori, datozen ekonomia-urteetan Hirigintzarako Udal-Egitamuketak orduan izan ditzan beharretarako laguntza emateko beste dirutza batzuk izendatzearen kaltetan gabe.

Hoiek horrela, Sail honek honako hau erabaki du:

*Lehenengo Atala.*—Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Udalek, Hirigintza-Egitamuketa gertatzezko eta idaztezko lanei erantzuteko dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen 1981garrenerako Guztizko Diruegitamuetan Egitamuketari laguntza emateko izendatutako diru-baltzaren pentzutan, Agindu honetan jartzen diren baldintza, betekizun eta bideen arauera.

*2garren Atala.*—Esandako dirutza horretatik, 7.500.000 peseta Bilbo Hiribilduko Hirigintza-Egitamuketa birraztertzeko xedez orain indarrean dagoen Egitamua aztertzeko eta birregokitzeko lanei laguntza emateko izendatuko dira, horren berezitasuna kontutan izanik.

## DEPARTAMENTO DE POLITICA TERRITORIAL Y OBRAS PUBLICAS

**739**

ORDEN 5/1981, de 14 de Agosto, del Departamento de Política Territorial y Obras Públicas, por la que se establecen las Bases para las Ayudas al Planeamiento Urbanístico de los Municipios en el año 1981.

Ilmo. Sr.:

Con fecha 16 de Julio de 1981, fue aprobada por el Parlamento Vasco, la Ley 8/1981 sobre "Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1981", en la que contiene una partida destinada a Ayudas al Planeamiento, con un montante de 75.000.000 de pesetas.

Según lo establecido en el artículo 191, apartado 2 de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, Texto Refundido, aprobado por Real Decreto 1.346/1976 de 9 de Abril, procede distribuir la aportación indicada de conformidad con las condiciones que se fijen por el Departamento de Política Territorial y Obras Públicas, sin perjuicio de que en ejercicios sucesivos, se consignen otras cantidades para subvencionar las futuras necesidades del Planeamiento Urbanístico Municipal.

En su virtud, este Departamento ha dispuesto:

*Artículo 1.º*—Los Ayuntamientos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, podrán solicitar subvenciones para afrontar los honorarios de los trabajos de redacción del Planeamiento Urbanístico, con cargo al fondo de 75.000.000 de pesetas consignado para Ayudas al Planeamiento en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 1981, con arreglo a las condiciones, requisitos y procedimientos que se establecen en la presente Orden.

*Artículo 2.º*—Del total indicado, se destinarán 7.500.000 pesetas para subvencionar los trabajos de análisis y reajuste del Planeamiento vigente, tendentes a preparar las bases para la revisión del Planeamiento Urbanístico de la Villa de Bilbao, en atención a sus especiales circunstancias.